


Julene Azpeitia Lehiaketa

2002



JULENE AZPEITIA LEHIAKETA

IPUINAK ETA BERTSO PAPERAK

2002. URTEA

Argitaratzailea:



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

Laguntzailea:



**Bizkaiko Foru
Aldundia**
Kultura Saila

*Argitalpen honek Bizkaiko Foru Aldundiaren
Kultura Sailaren laguntza jaso du*

Izenburua: Julene Azpeitia Lehiaketa. Ipuinak eta Bertso paperak. 2002. urtea

Azala eta barruko marrazkiak: Imanol Larrinaga

Argitaratzailea: Durangoko Udala

Maketazio eta fotomekanika: Gertu. Oñati

Inprimategia: Gertu. Oñati

Lege Gordailua: SS-1319/02

2002ko azaroa

AURKIBIDEA

HITZAURREA	7
------------------	---

Nerea Urien Aspitarte

Euskara, Kultura eta Hezkuntza Batzordeko Lehendakaria

IPUINAK

HIRU LAGUN FILM BATEN BARRENA.....	11
------------------------------------	----

Leire Gorroño Albizu

BOTA BIDAIA.....	31
------------------	----

Ane Aizpurua Azurmendi

NIRE LAGUN BEREZIA.....	41
-------------------------	----

Aitor Elorriaga Azpeitia

PASABIDE MISTERIOTSUA.....	49
----------------------------	----

Mikel Agirre Maskariano

PANPIN HUTS BAT NAHIZ	57
-----------------------------	----

Natalia Campo Dominguez

ZORTZI URTEZ AMESTUTAKO ITZULERA.....	67
---------------------------------------	----

Gontzal Alkorta Garai

BIZITZAK EMATEN DITUEN SORPRESAK	79
--	----

Joana Etxebarria Uranga

HILDAKOAREN SOLASAK.....	91
--------------------------	----

Luis Mari Mujika Urdangarin

BERTSO PAPERAK

BERTSOAK	107
<i>Mikel Zumarraga Azkarate</i>	
EUSKERA ALA ERDERA?	113
<i>Laura Iraurgi Izurza</i>	
BERTSOAK	119
<i>Oinatz Uribe Peñalba</i>	
ZORIGAITZA	127
<i>Julen Pradera Olaso</i>	
BERTSOLARI IZATEAZ ERDI DAMUTURIK	135
<i>Julen Zelaieta Iriarte</i>	

HITZAURREA

Gure hizkuntza, ohiturak eta kultura nolabait sustatzen murgilduta gabil-tzanok badakigu zer den liburu bat euskaraz argitaratzea, zer nolako esfortzua supo-satzen duen.

Duela hemeretzi urte, 1983an, Durangoko Udaleko Kultura Batzordeak umeentzako I. Ipuin Lehiaketa antolatu zuen. Sariketari izenburua jartzea ez zen batere konplikatua izan, horrexegatik Julene Azpeitiaren izena jarri zitzaion. Izan ere, Julene Azpeitiak gure hizkuntza bere osotasunean ikasi eta irakatsi zuen eta idatzi eta argitaratu ere euskaraz egin zuen.


Beraz, ordutik hona argitaratu diren eta etorkizunean argitaratuko diren ipuin eta bertso sarituak oroimenean gorderik daramagun pertsonaren izena darama-te: *Julene Azpeitia Lehiaketa. Ipuinak eta Bertsoak*.

Durangon, 2002ko azaroan.

NEREA URIEN AZPITARTE

Euskara, Kultura eta Hezkuntza Batzordeko Lehendakaria

ipuina¹k



LEIRE GORROÑO Albizu

*Irabazlea 11-12 urteko sailean
San Jose - Jesuitak Ikastetxea*



HIRU LAGUN FILM BATEN BARRENA

*O*rain dela hamar urte inguru, baziren hamabi urteko hiru lagun, Euskal Herriko herrixka ia ezezagun batean bizi zirenak. Herrixka mendiz inguratua zegoen eta jendea harrizko baserri handietan bizi zen. Herrixka ondoan zelai handi bat zegoen, aldamen batean adaxkak eta zuhaitzak zituen eta beste batean ur garbiko erreka txikitxo bat zegoen. Lagun hauetako bi neskak ziren. Onintze eta Ainhoa, bikiak ziren. Ile horia zuten eta bere adinerako oso garaiak ziren, beldurrezko filmak gogoko zituzten, saskibaloiko jokalaririk onak ziren eta aktorea lan ona egiten zuten. Onintze ikasle ona zen eta irakurtzea gogoko zuen. Ainhoa, ordea, ez zen ikasgaietan oso ona. Peio, horrela baitzuen hirugarren lagunak izena, neskak baino baxuagoa zen eta ilea ikatza bezain beltza zuen eta ia orraztu gabe zeraman. Peio kirol guztietan jaioa zen eta berak ere beldurrezko filmak gogoko zituen.

Egun batean, herrixka ondoko zelaira joan zirenean, han zeunden mutilak Peio zirikatzen hasi ziren beti neskekin egoteagatik.

– ISILDU ZAITEZ! BEKAITZA DUZUE! Batez ere zuk, Txomin, mundu guztiak baitaki Ainhoaz maiteminduta zaudela-purrust egin zuen Peiok ukabilak gogor estutuz, neskak mutila handik eramaten saiatzen ziren bitartean.

– Goazen, ostantzean iskanbilatan sartuko gara-eta.- xuxurlatu zion Ainhoak belarrira.

– Bai ni Ainhoaz maiteminduta nago- esan zuen, aurpegia gorri-gorri, Peioren sentitzen zuen lotsa gorrotoa aurpegian nabari zitzaiz-kiolarik-; baina, zu Onintzez maiteminduta zaude- esaldia bukatzean eta Peioren aurpegi haserrea ikusi zuenean, irri maltzur bat irten zitzaion bere ezpain txikietan.

Onintzeri harridura nabari zitzaion, eta lurrera itsatsita balego bezala zegoen. Ainhoa bitartean biei besoetatik tiraka zebilen handik joateko.

Lortu zuenean lagunak erreakzionatzea, beraiek egindako etxola batera joan ziren. Etxola pago handi baten gainean zegoen. Bertan telebista eta irrati bat zituzten. Hara joaten ziren txutxumutxuak kontatze-ra eta jolastera triste zeundenean. Peiok burumakur jarraitzen zuen oraindik lotsaren lotsaz. Ainhoa disko batzuk ikustatzen ari zen. Pixka bat lehenago Peiok Txomini buruz esandakoak pentsakor jarri zuen, baina ez zitzaion nabari. Lagunek kontrakoa pentsatzea nahi zuen eta lehen esan dizuedan moduan aktorea lan ona egiten zuten bi ahizpek. Onintzeri ordea, momentu hartan ez zitzaion axola, eta leihotik begira zegoen aulki batean eserita pentsakor eta sinistu ezinik. Orduan, eguzki



izpiak ahuldu zirela eta ilunabarra zela konturatu zenean, salto batean altxatu zen aulkitik.

- Zer ordu da?
- Zortziak eta erdi- esan zuen Peiok bera ere saltoan zutituz.
- Eta orain nola hartuko dugu filma- kezkatu zen Ainhoa.
- Behin gurasoak etxolan lo egiten utziko eta zer ordu den ahaztu dugu- kexatu zen Onintze.

Hamar bat minutuko isilunearen ondoren, honela hitz egin zuen Peiok:

- Nik badut ideia bat -neskek burua biratu zuten Peio zegoen toki-rantz harrituta-, jendea kaleetatik joan arte itxaron eta bideo dendan sartu, filma hartu, ikusi eta goizaldean inork ikusi gabe berriro buelta-tu...

- ...gainera ez dago kamerarik ezta alarmarik -bukatu zuen Ainhoak esaldia.

- BURUTIK JOTA ZAUDETE! -txilio egin zuen Onintzek-. Zuek nahi duzuen egin dezakezue baina, nik ez dut buru-gabekeria horretan parte hartuko. Gainera, beste arazo bat dago, nola zabalduko dugu atea?

- Horretan arrazoi du -esan zuen Ainhoak burua makurtuz.
- Ahaztu duzu jada zeinen arin zabaltzen ditudan sarraillak, ala? -erantzun zien Peiok.
- Egia da -esan zuten bi ahizpek batera.

- Orduan, egingo dugu? -galdetu zuen Peiok irrikaz.
- Ongi da -baiezkoa egin zuen Onintzek buruaz.
- BAI! -salto egin zuten Peiok eta Ainhoak pozaren pozez.

Gaueko hamabiak inguru ziren jada, eta lagunak prest zeunden plana martxan jartzeko. Denak eskularruak zeramatzaten, Ainhoak mototsak egiteko erabiltzen zituen gomak zeramatzan, Onintzek etxolara eramane zuen motxila eta Peiok eskuargi zahar bat.

Heldu zirenean, inor ez zegoela ziurtatu zuten eta Peio atea irekitzen saiatzera joan zenean txunditu egin zen. Buruarekin keinu arraro bat egin





zuenez eta dena ilun zegoenez, lagunak barrura sartzeko esan ziela uste izan zuten eta aurrerantz joan ziren baina, Peiorekin trebukatu ziren.

– Zer gertatzen da? –galdetu zuen ia ahotsik atera gabe Ainhoak.

– Atea irekita dago –erantzun zion ahots harrituarekin Peiok.

– Noski! Zabaldu baduzu ez da itxita egongo, ezta! –esan zion berriz Ainhoak ahotsa igoz.

– Nik ez dut zabaldu.

– Oh! Orain ateak bakarrik zabaltzen direla esango didazu! –oihu egin zuen Ainhoak– Zer uste duzu, tontoak garela, edo zer?

– Ssssst! Isilduko al zarete! Horrela jarraitzen baduzue, norbait esnatu eta konturatu egingo da –esan zien Onintzek. Lagunak ez ziren konturatu ordu arte, baina Onintze atzazalak jaten ari zen. Hau asko pentsatzen zuenean bakarrik egiten zuen–. Sartu gaitezen.

– Gero gu gara burutik txarto gaudenak, ezta! –esan zioten Peiok eta Ainhoak batera Onintzeri.

– Ez baina, zer gertatzen den jakin behar dugu. Agian konturatu gabe utzi dute atea zabalik. Goazen! –eta bultzadatxo bat eman zien.

Barruan zeundela, argi distiratsu bat ikusi zuten dendaren atzealdean eta bertara joan ziren.

– Etorri zarete –esan zien ahots maltzur batek eta bat batean, zast!, armairu handi baten atzetik begi gabeko izaki izugarri bat agertu zen. Aurpegi zuria zuen eta begi–zulo gorriak. Begi zuloetatik harrak irteten zitzaizkion.

– Nor zara? –galdetu zion Peiok ia ahotsik gabe izuaren izuz.

– Hainbeste film ikusi–eta oraindik ez dakizue nor naizen! Ni zigorren aztia naiz. Inoiz ikusiko duzuen aztirik bihozgabeena eta maltzurrena naiz. Gainera arte ilunetako aztirik beldurgarriena naiz.

– Bai eta guk sinetsi –esan zion Ainhoak harroputz doinuarekin badakit inozoak garela baina, ez hainbesterako!

– Ez didazue sinisten, e? Ba orain ikusiko duzue. Zigor txikiagoa nuen pentsatua, baina –eskuak berde kolorekoak jarri zitzaizkion, *SRE-KITISKI* oihu egin eta lagunek hartu behar zuten filma airean altxatu zuen–, BARRURA!

Orduan hiru lagunak filmean sartu zituen. Filma beste galaxia bat balitz bezala zen. Orain filma errealitatea zen beraientzat. Mendi garai bateko maldan zeunden, mendia harria besterik ez zen berdegune batzuekin mendiaren oin inguruan. Baina, ez zen bizia zuen ezer ikusten, putreak mendi tontorrean hegaldaka izan ezik animalia hilen bat bilatzen. Beraien aldamenean sarrera beldurgarriko kobazulo bat zegoen, eta bere ondoan TRIUS ETA ASLEREN ETXEA jartzen zuen letra morearekin kartel distiratsu batean.

– Sar gaitezen –esan zuen Ainhoak, bi lagunek burutik jota balego bezalako keinu bat egin zuten–. Zer? Zer galduko dugu etxera itzultzten saiatzeagatik?

Ainhoak eskuargia piztu eta hiru lagunak kobazuloan barrena sartu ziren. Hamar minutu luzez pasabide amaigabeetan ibili ondoren gurutze batera heldu ziren.



- Eta orain norantz jo behar dugu? -galdetu zuen Peiok kezkatu-rik.
- Onena bakoitza alde batetik joatea da eta hamar minutu barru hemen batzea -eman zuen bere iritzia Ainhoak.
- Bai eta norbaitek zeozer aurkitzen duenean txistu egin dezala -erantzun zion Onintzek.
- Hori da! -erantzun zion Ainhoak poz-pezik.
- Ez daukazu burmuinik, ala? -bota zion Onintzek haserretu aur-pegia-ekin. Bitartean Peio harrituta zegoen izkina batean.
- Zer da hori? -galdetu zuen Peiok ahizpak oraindik eztabaidan ari ziren bitartean- **ISILDU!** Ainhoa zuzendu eskuargiaren argia honantz. Oinatzak dira!
- Miresgarria zara Peio -esan zioten bi ahizpek zoriontsu.
- Beno, ez da hainbesterako -esan zuen masailak gorri-gorri zitue- la eta burua ezkerreko eskuaz harraskatzen zuela-. Gainera zuek ere konturatuko zineten eztabaidan ibili ez bazinete.
- Zer gertatzen da Onintze? -galdetu zion Ainhoak ahizpari atza- zalak jaten ari zela konturatu zenean.
- Horiek *zigorren aztiak* zeramatzan hantzeko oinetakoek eginak direla uste dut. Bestela begira inguruan dituen bi zulo horiek. Ez zare- te konturatu aztiaren oinetakoek hego txiki batzuk zituztela? -bi lagun- ek harriturik begiratzen zioten-. Gainera ezinezkoa da justu hor bi zulo egon izana, han aurrean ikus daitekeen beste oinatz baten ondoan ere badaudelako. Eta...

– Egia da, goazen ba! –Ainhoa irrikaz zegoen aurrera jarraitzeko.

– ...uste dut badakidala nortzuk daramatzaten horrelako zapatak. Itxaron momentu bat.. –eta bere motxilatik liburu zahar eta lodi bat atera zuen– hemen dago. Aitonak oparitu zidan, gogoratzen? Bere birraitonak emandakoa zela esan zidan. Bertan aztien eta sorginen istorioak eta ezaugarriak agertzen dira. Mmmm... hemen egon behar du... –liburuko orrialdeak bizkor pasatzen zituen– hemen dago! Aztiak hama-bi urte bete eta gero bakarrik erabili ditzakete, eta gure oinak oinatzekin konparatuz gero, gure adineko azti bat izan daitekeela esan daiteke. Sorginek gainera erratza ere izan dezakete.

– Beno ba, jarraitu dezagun. Zer egiten dugu hemen geldirik?

Eta oinatzak zeunden bidetik jarraitu zuten. Bost minutuz pasabide estuetan ibili eta gero ate erraldoi baten aurrera heldu ziren. Ateak ez zuen sarrailarik, zulo handi eta lauki bat zegoen ordea, puntu gorri batekin erdian. Zuloaren gainean asmakizun hau zegoen idatzita:

“Batzuetan kontsultarako, besteetan interesgarri edo beldurgarri, badira akziokoak ere bai.

Zu baino txikiagoak gara, batzuk lodiak eta besteak meheak, baina beti zuri laguntzeko prest. Oraingo honetan magiaren lagunak dut izena”

Irakurtzerakoan erantzuna pentsatzen hasi ziren.

– Badakit! –esan zuen Onintzek– Liburu batzuk kontsultarako, besteak interesgarriak dira edo beldurgarriak, badira akziokoak ere. Liburuak da erantzuna. Baina, ez dut amaiera ulertzen.



– Magiaren lagunak, non irakurri dut hori lehenago? –hasi zen pentsatzen Peio– Hori da! Onintze atera ezazu zure liburua, banekien izenburu hori irakurria nuela nonbait –esan zuen Peiok poz–pozik–. Kokatu ezazu hutsunean eta biratu.

Onintzek Peiok esandakoa egin zuen eta ate erraldoia, bat–batean, zabaldu egin zen.

– Asle, zu zara? –galdetu zuen mutiko baten ahotsak barrualdetik. Baina, Asle ez zela konturatu zenean, txundituta geratu zen, inork ez baitzuen hara heltzea lortu. Leku hartako jende gehienak kobazuloaren sarrera ikusita ez zen barrura sartzen eta besteek Tutiren ahotsa entzun eta beste pasabidetik joaten ziren. Txakur erraldoi haren begi hilgarriak ikusi arte– Nortzuk zarete?

– Gu Onintze eta Ainhoa gara eta horko hori Peio da. Eta zu, nor zara eta nor da Asle dena delako hori? –galdetu zuen Ainhoak.

– Ni Trius naiz. Hamabi urteko aztia. Asle nire arreba da. Berak hamahiru urte ditu –erantzun zien mutilak beraingana hurbilduz–. Nola lortu duzue honaino heldu eta atea zabaltzea?

– Oinatzak ikusi ditugu eta aitonak eman zidan liburu batekin, atea zabaldu dugu –Onintzek esaldia bukatu orduko atea berriz ireki zen.

– Kaixo, Asle –esan zion Triusek– hauek Ainhoa, Onintze eta Peio dira.

– Orduan zuek zarete. Lehen hots batzuk entzun eta erratzarekin hegan hasi naiz, gero teilatuan oratu naiz –esan zuen Aslek erratza eskuan zuela.



– Sartu gaitezen egongelara –esan zuen Triusek mando batekin beste ate bat zabalduz.

Eta gela erraldoi eta dotore batera sartu ziren. Gela kandelek argitzen zuten.

– Zuek badakizue nola irten daiteken hemendik? –galdetu zuen Peiok.

– Begira, zigorren aztiak beldurrezko film batera sartu gaitu, zigor giza –azaldu zien Onintzek.

– Uste dut badakidala nola –esan zien Aslek–. Orain gure gainean dagoen mendiaren tontorrera igo behar da eta bertan Elurren gizonak asmakizun bat ondo erantzun ondoren, hiru gurari eskaintzen ditu.

– Goazen ba –esan zuen Ainhoak irrikaz.

– Bai, baina, mendian gnomoak, zonbiak eta hainbat gizaki beldurgarri bizi dira –esan zien Triusek.

– Baina, hemen hogeita lau ordu baino gehiago ematen badituzue, betirako geldituko zarete.

– Orduan behintzat saiatu egin behar dugu –esan zuen Onintzek.

– Arrazoi duzu baina, oso gogorra izango da goraino heltzea –erantzitu zuen Peiok.

Orduan Aslek bere erratza lurrean utzi eta korrika irten zen eta pare bat minutu geroago *zapata hegalariekin* eta bi erratzekin bueltatu zen.

– Zenbat urte dituzue? –galdetu zien neskak.

– Hamabi.

– Baina, Asle, txartelak behar dituzte erratzean ibiltzeko.

– Bai eta horregatik ditut hiru txartel, bat bakoitzarentzat. Gorde hau patrikan– esan zien txartelak hurbilduz–. Peio zuk jantzi zapata *hegalariak* eta altuan *GORA* esatea besterik ez da, eta buruarekin gidatzen da. Zuek hartu erratzak eta eman ostiko bat lurrari. Zuek gorputzarekin gidatuko duzue.

– Orduan zeren zain gaude –esan zuten bi ahizpek Triusek zulo handi bat sortzen ari zen bitartean hitz magikoak esanez.

Hogei minutu barru ia tontorrean zeunden eta Aslek gidatzen zituen. Bat–batean Aslek lurreratzeko keinua egin zuen eta denak bere atzetik lurreratu ziren.

– Zer gertatzen da? –galdetu zuen Peiok.

– Hemendik tontorreraino oinez joan behar da, hegan edo erratzean joatea debekatua baitago.

– Orduan zer egingo duzue erratzekin? –galdetu zuen Onintzek.

– Mmmm... ba berriro etxera bidaliko ditut –esan zuen Aslek–
LILATUM BUELTATU ETXERA!– eta erratzak beraiek bakarrik hegan joan ziren eta lagunek aurrerantz jarraitu zuten.

Jada hamar minutu zeramaten bidean gnomo talde bat haiek inguratzeko hasi zenerako.

– Eta orain zer? –galdetu zuen Triusek.

– Ez duzu ezer ikasi eskolan, ala? **TRUTINI!** –oihu egin zuen Aslek bere makila magikoa gnomo batengana zuzenduz. Gnomoa desgertu egin zen.



– Horrela denbora asko beharko dugu –esan zuen Peiok gnomoak zenbat ziren zenbatzen ari zen bitartean.

– Trius –esan zuen Onintzek– badakizu saskibaloiko baloiak agertzeko behar diren hitz magikoak?

– Bai, noski.

– Ba, orduan egin baloiak agertzea. Eta zuek biok hartu baloiak eta bota ahal bezain gogor gnomoen burura. Liburuan irakurri bainuen gnomoei zerbaitek buruan jotzen bazien konorte barik geratzen direla.

Horrela hogeit hamar minutu inguru egon ziren baloiak botatzen eta hitz magikoak esanez. Azkenean lortu zuten.

– Bizkor ibiltzen bagara, ilundu baino lehen helduko gara eta ez dugu banpiro eta zombien arriskurik izango –esan zuen Triusek.

Horrela beste hogeit hamar minutuz ibili ondoren, Peiok zerbaitek jarraitzen zietela konturatu zen.

– Zerbait datorkigula atzetik esango nuke –esan zien atzera begiratu.

Lagunek atzera begiratu zutenean otso talde bat agertu zen zeunden sasi gutxien artetik. Otso bakoitzak bi buru zituen eta hegoak ere bai.

– Aaaaaaaa! –oihu egin zuten lagunek.

– Isilik –esan zien Triusek bere makila ateratzen zuen bitartean–
LIELUTEN! –hitz magikoak esan ordutako otsoak harri bihurtu ziren.

Azkenean sustoa pasatu ondoren berriz ekin zioten bideari, eta horitik gutxira tontorrera heldu ziren. Bertan agure zahar bizar zuri bat zegoen izotzezko aulki batean eserita.

- Heldu gara -esan zuen Ainhoak pozik.
- Barkatu jauna -esan zion Onintzek ahots gozoz- asmakizunaren bila gatoz.
- Ziur zaudete? Badakizue asmatuz gero hiru gurari eskainiko dizkizuedala. Baina, bestela, nire esklabo izango zarete betirako.
- Ongi da -esan zuten lagunek oso ziur ez egon arren.
- Hau da asmakizuna -eta izotzezko taula bat eman zien honakoa zuela idatzia:

“Madariondo batean madariak daude.

Ez ditugu madariak hartzen eta ez

dira madariak gelditzen. Zenbat madari zeuden lehen?”

- Pentsa ezazue ondo erantzun baino lehen, zuen etorkizuna jokoan baitago.
- Badakit -esan zuen Onintzek hortik ordu laurdenera. Eta bere lagunekin komentatu zuen erantzuna, eta denak ados egon zirenez honela erantzun zuen-. Bi madari zeuden lehen. Madariak bazeuden bat baino gehiago egon behar ziren eta ez baditugu madariak kentzen bat izan behar da eta ez badira madariak gelditzen bat izan behar da derrigorrez. Horrela kendutakoa gehi gelditzen dena bi ematen du, hau da, madariaK zeuden (bi, bat baino gehiago) ez ditugu madariaK kentzen (bat, bi baino gutxiago) eta ez dira madariaK gelditzen (bat, bi baino gutxiago) -eman zuen Onintzek bere erantzunaren azalpena agureari.
- Ondo erantzun duzue -esan zien agureak-. Zeintzuk dira zuen gurariak?



Denbora batez beraien artean komentatu ondoren honela hitz egin zuen Peiok:

- 1. guraria: Film honetatik irten eta gure herrixkara itzulti da, Asle eta Trius ere bai.
- 2. guraria: Hemen egon garela ahaztea nahi dugu, jendeak burutik jota gaudela pentsa ez dezan.
- 3. guraria: Herrixkako guztiek pentsatzea Trius eta Asle betidanik bizi izan direla herrixkan.

Onintzek badaezpada asmakizuna idatzia zegoen izotz zatia bere motxilan sartu zuen agurea hitz magikoak esatera zihoala konturatu zenean.


- Ongi da -eskuak more jarri zitzaizkion- LETIULOREN BUELTA DAITEZELA ETXERA, DENA AHAZTU DEZATELA ETA HERRIXKAKOEK TRIUS ETA ASLE BETIDANIK EZAGUTZEN DITUZTELA PENTSA DEZATELA!

Orduan bost lagunak zurrumbilo amaigabe baten sartu ziren.

Hurrengo egunean bost lagunak beraien etxolan esnatu ziren zorabio pixka batekin. Onintze bere motxila hartzera zihoanean izotzezko taula bat erori zen lurrera. Inork ez zekien arren nondik agertu zen gauza hura ez zioten garrantzirik eman, ez baitziren ezertaz gogoratzen, eta jolastera joan ziren herrixka ondoko zelaira. Bertan Txomin eta bere lagunak zeuden baina, Trius eta Asle betidanik herrixkan bizi izan balira tratatu zituzten. Txomin Peio zirikatzen hasi zen berriro, baina honek ez zion jaramonik egin eta futboleko jolastera joan ziren.



Ordutik ez dute berriz *Zigorren aztiarekin* topo egin eta oraindik ez dute izotz zatiaren misterioa argitu.



ANE AIZPURUA AZURMENDI

*Aipamen berezia 11-12 urteko sailean
Kurutziaga Ikastola*



BOTA BIDAIARIA

*K*aixo, nik Kloti dut izena, bota ilun bat naiz, beltza edo horrelakoren bat. Nire takoiak, gutxi gora-behera, 5 edo 6 zentimetroko luzera du. Ni ez naiz sokekin lotzen den horietakoa, ez, ni kremaile-ra batez ixten eta zabaltzen den horietakoa naiz (batzuetan kremaile-ra kateatu egiten da eta jendea kexati jartzen da, baina berdin da!).

Nire zenbakia 42a izango da, ez dakit baina, bai horixe! Nire jabearen izena Igoa da, Venezuelan bizi da, Caracasen hain zuzen. Beno, baina ni Euskal Herrira etortzen denean erabiltzen nau (ni eta nire bikia, Klara, a zer harroputza zen!).

Klara eta ni, Kloti, beti geunden borrokan eta pena pixka bat ematen dit orain pentsatzerakoan ez dudala gehiago ikusiko. Pozik nago azken finean, A ZE BAKEA! PUFF..! Baina orain oso bakarrik sentitzen naiz. Aaaa!!! Ahaztuak nituen, Bip eta Bap eta, noski, Saturnino .

Ea nortzuk diren Bip, Bap eta Saturnino? Ez al dakizue nortzuk diren? Beno ba, Bip eta Bap galtzerdi bikotea dira eta noski, biki guztiak bezala, beti ari dira borrokan, baina bihotz-bihotzean asko maite dute elkar. Elkarrekin eta besteekin ere oso maitagarriak dira.

Negurako galtzerdiak dira, oso-oso beroak, kolore ilunekoak. Noski, baina biki guztiak bezala, Bap 4 minutu nagusiagoa da Bip baino (ni bezala, ni Klara baino 4 minutu eta 29 segundo nagusiagoa naiz, baina hori ez da ezer!).

Eta Saturnino, noski, buffa da, eztarriko horietakoa, urdin iluna da, oso leuna eta beroa. Ikusten duzuenek denak gara negukoak. Igoa neguan etorri zelako hona, Euskadira. Igoak bi ahizpa gazteago dauzka: 11 urteko Ane eta 5 urteko Malen.

Hasieran Ane Saturnino erabiltzen hasi zen, baina gero utzi egin zuen.

Gu lauron deskribapen psikologiko zuzenak hauek dira: ni abenturazalea, Bip eta Bap bihurri hiztunak eta Saturnino listo diplomatikoa. A ZE TALDEA.....!!!

Denetarik dago!! Aaa...noski!! Bap, Saturnino eta ni arrak gara, baina Bip emea da.

Gure artean oso lagunak gara, baina Bip beti dabil hau esanez: "Goazen Venezuelara, Igoa ikusi nahi dut ...!"



Beti kexatzen eta kexatzen, a zer plasta pusketa !

Hori esaten segi ez dezan Saturnino matematika gehiketak altuan egiten hasten da eta Bipek matematika gorroto duenez isildu egiten da eta isildu ezik, Bap kantari hasten da: “ Boga, boga marinela, joan behar degu urrutira, eeup!”

Bi truku hauek beti funtzionatzen dute, Ja-ja-ja....!

Noski, bera eme bakarra da, denon artean gazteena eta horrek eragin handia du.

Lehen kaxoian eme guztiak elkartu eta kuxkuxean ibiltzen ziren, eta orain hiru arren artean... eme bakarra... beno, baina oso pozik dagoela dirudi.

Gabonetatik gaur arte Ane eta Malenen etxean bizi izan gara. Gaur astelehen gauean, hamaika t´erdiak inguruan, Venezuelara bueltatzea pentsatu dugu.

Nola bueltatuko garen? Kontxo! gero esango duzue munduko izaki bizidunik inteligenteenak zaretela..!

Ba, lehenengo eta behin Aneren motxilan sartuko gara eta Ane kotxera sartzen denean jaitsi egingo gara motxilatik. Gero, atea zabaltzean, irten eta, beti bezala, nik lan gogorrena egin beharko dut: saltoka joan, aaah...!

Eta pentsatuko duzue beste hirurak nola helduko diren, ez da ? Ba, nire barruan! Gero bosgarren mailakoek txangoa dutenez, beraien



autobusera sartuko gara. Ondoren, handik arrantzale itsasontzi batean Venezuelako kostetara helduko gara. Eta gero gerokoak!

Beno, esan eta egin! Orain itsasontzira sartzen ari gara eta espero dugu ondo igarotzea bidai hau, hamaika egun luze direlako.

Jadanik, zortzigarren egunean gaude eta ez dago inongo arazorik, baina gaur itsasontziaren goialdera joan behar gara arrantzaleak ohartu ez daitezen.



Bagaude goian eta hara non ikusten dugun txalupa txiki bat, korallak ilegalki hartzen duen horietakoa, barruan “Kumana” deitzen den merkatari beltz batekin.

- Salto egingo dugu!
- Bip eta Bap, prest?
- Bai, prest !
- Prest Saturnino?
- Noski, prest !

Eta segituan salto egin dugu, Danba! Gizon beltzak zerbait sumatu du eta burua jiratzen hasi da, baina ez duenez ezer ere ikusi lasai-lasai jarraitu du.

Hondartzara heltzean, beltzak txalupa harkaitzen artean ezkutu-tu, korala hartu eta joan egin da.

Joan denean, gu txalupatik irten gara. Gaua denez harkaitz artean geratu gara lo egiten.


Gau guztia lo seko igaro dugu. Goizeko zortzi t´erdietan zaratak entzuten hasi gara, jendea hondartzara etorri da eta gu oso nekatuta gaudenez ez gara mugitu ere egin.

Baina bat-batean hau entzun dugu:

– Maite, Maite, ikusi... galtzerdi hauek... buf hau... eta bota hau nireak dira, Abadiñon utzi nituenak! A zer sorpresa ! – esan zion Igoak bere izekoari.



Eta orain oso pozik gaude enpotratuta, armairuan eta kaxoietan;
Venezuelan, dena hasi zen tokian. Eta horixe izan da dena, lagunok.



AITOR ELORRIAGA AZPEITIA

*Aipamen berezia 11-12 urteko sailean
Landako Herri Ikastetxea*



NIRE LAGUN BEREZIA

*N*i egunero noa klasera, larunbatetan eta igandetan izan ezik.

Ostegunetan futbolera noanean, animalia denda batean, kokodrilo bat ikusten dut, bakar-bakarririk. Gurasoei galdetu diet ea erosteko permisurik dudan, baina... badakizu zer erantzun didaten? “Ondo portatzen ikasten duzunean, Luis, eta gero zuk aurrezten duzun diruarekin nahi baduzu erosi, baina baineran sartzeko modukoa izan dadila.”

Ni ahal dudan ondoen portatzen ari naiz eta nire propinatik ez dut txikle bat ere erosten.

Hilabete batzuk pasa dira kokodriloa erosi nahi nuenetik eta amak permisua eman dit erosteko.

Dendara joan naiz erostera. Pisu handia zuenez, sobratu zaidan diruarekin taxi batean sartu naiz. Etxera heldu naizenean, baineran sartu dut ilusio handiarekin. Eskerrak bainera urez beteta zegoen! Kokodriloa bueltaka hasi da, baina ondo dagoela ematen du. Amak oraindik ez du ikusi.





Ama, zuri, beltz, gorri, urdin, hori eta berde ipini da kokodriloa ikusi duenean. Ez du lorik egin gau osoan, eta aitari berdina gertatu zaio.

Kokodriloa bakarrik egon ez dadin, ostegun guztietan futbolera eramango dudala pentsatu dut.

Lehen, partidu guztiak galtzen genituen, baina kokodriloa ekipora sartu denetik, ez dugu bat ere galdu. Beti kokodriloari pasatzen diogu baloia eta beste ekipoko jokalaria kokodriloaren beldur dira. Kontrako ekipoa ausartzen den norbait badago, haginka egiten duela esaten diogu. Hori gezurra izan arren, eta ez badu sinesten, kokodriloari esaten diogu, kontrako ekipoko norbait hurbiltzen bazaio, mugimendu zakarrak egiteko eta horrela hauek beldurtu egiten dira. Egon da norbait, beldurrik eduki ez duena, baina kokodriloak hagin eta aho gogorak dauzka eta ez du baloia ahotik ateratzen. Kokodriloak ez du korrika askorik egiten, baina apurka-apurka golak lortzen ditugu, azkenik partiduak irabaziz.

Futboletik aparte, etxean askotan egoten da gustatzen ez zaidan janaria eta gurasoak konturatu gabe, kokodriloari ematen diot.

Kokodriloarekin hilabete bat pasa eta gero, izena jarri behar diodala pentsatu dut. Gauean pentsakor ibili ondoren, Drilokoko jarriko diodala pentsatu dut eta halaxe izan da. Horrela bere izena askotan errepikatzen baduzu, kokodrilo ateratzen da.

Gogoratzen dut lehen etxean janari asko soberan geratzen zela, baina orain ez da geratzen ezta ogi papur bat ere.



Urte bete pasa dugu Drilokokorekin. Horregatik gaur, apirilak 8, ospakizun ttiki bat egin dugu, amak, aita, nik eta noski gure ospakizuneko protagonistak: Drilokoko kokodriloak. Bi txuleta eta bozal bat oparitu dizkiogu gure etxeko animalia basatiari.



Nire lehengusuari ez zaizkio kokodriloak gustatzen, baina gaur nire etxera etorri eta aurrez aurre ikusi duenean hain gauza harrigarriak egi-
ten, berak ere bat nahi duela esan die gurasoei. Denok barrezka hasi
gara.



Mikel AĞIRRE MASKARIANO

***Irabazle 13-14 urteko sailean
Sagrado Corazón Ikastetxea***



PASABIDE MISTERIOTSUA

*B*azen behin Nikolas deituriko gizon bat. Nikolas oso jatorra zen. Ile beltza zuen eta garaia eta sendoa zen.

Nikolasek museo baten egiten zuen lan, garbitzaile bezala. Museoa Thomas Vienndrich deitzen zen, Birminghameko black Vialean zegoen. Behin bere koadrorik gustukoena garbitzen joan zenean zarata gogor eta luze bat entzun zuen. Zarata zetorren lekurantz abiatu zen. Zaldi baten irudia zuen koadro batek egiten zuen. Orduan Nikolasek koadroa mugitzea erabaki zuen. Koadroa mugitu eta ez zegoen ezer. Horma besterik ez.

Bertan behera utzi zuen zarataren misterioa eta garbitzen jarraitu zuen. Baina, berriro ere, zarata entzun zuen, lehen baino gogorrago gainera. Haserreturik, Nikolas zarata zer zen jakitera joan zen. Makila bat hartu, koadroa mugitu eta horma behera bota zuen. Orduan museoko polizia Nikolasengana joan zen. Zer gertatzen zen galdetu zion. Nikolasek misterioa azaldu zion eta museoko polizia barrezka hasi zen. Baina, une horretan berriro entzun zen zarata, beraien belarrien ondo ondoan gainera. Poliziak sinetsi egin zuen Nikolasek esandakoa, eta biak hasi ziren horma botatzen. Bat batean zabalgunek bat aurkitu zuten. Lehenik polizia sartu zen eta Nikolasek jarraitu egin zion. Pasabide luze

eta estu bat zen. Ia sartu ere ezin ziren egin. Aurrera jarraitu zuten biek, oztopo bat aurkitu arte: pasabidea bitan zatitzen zen. Biek ezkerreko pasabidetik joatea erabaki zuten. Estuena zen, baina poliziak esan zuen bide egokia handik zegoela, eta Nikolasek jaramon egin zion.

Pasabidea ez zela amaitzen zirudien, baina gure bi lagunek ez zuten etsi eta aurrera jarraitu zuten. Pasabidea gero eta estuagoa zen eta makurtuta joan behar izan zuten. Une horretan polizia goranzko beste pasabide bat zegoela konturatu zen, eta gorantz jo zuen. Nikolasek bera ezin zela igo esan zion poliziari, eta aurrera jarraitu zuen berak bakarrik. Polizia gora igo zenean ganbara bat eta eskailera batzuk zeudela ikusi






zuen. Aldi berean, Nikolas beheruntz zegoen pasabide batetik erori eta liburutegi handi batera iritsi zen. Beste alde batetik polizia eskailerak igo eta igo zebilen. Azkenean laborategi batera iritsi eta arrastorik utzi barik hil zen. Esaten dute norbaitek injekzio batekin hil zuela. Bien bitartean Nikolas liburutegian zegoen. Liburutegia argi erreflektantez beterik zegoen. Nikolasek argiak jarraitu zituen. Orduan norbaitek eskutik heldu eta berari jarraitzeko esan zion. Nikolasek kasu egin zion, baina ez zen ideia ona izan, labain batez zauri handi egin ziolako eskuan. Nikolasek eskua ikusi eta korrika hasi zen. Orduan, konturatu barik, pasabide batetik erori zen. Pasabidearen beste aldean pertsona bat zegoen beste aldera begira, labaina zuen pertsona zahar bat zen. Buelta eman zuenean Nikolas ihesi joan zen norabide tinko barik. Agureak barre egin zuen. Nikolas asko urrundu zen agureagandik, baina atzerantz begira zihoala, bat batean, bere aurrean sorgin zahar et itsusi bat ikusi eta berehala beste alderantz egin zuen buelta, baina beranduegi zen, agurea bere atzean baitzegoen. Agureak esku zauritutik heldu zuen Nikolas. Orduan bere lagun polizia hil zuten laborategira eraman zuten Nikolas, eta aulki elektrikoan jarri zuten, baina Nikolasek bazekien ez zegoela argirik. Bat batean, argia piztu zuen eta Nikolas urduritzen hasi zen. Nikolasek kablea hanketan zeukan, baina hala eta guzti ezin zuen argia itzali. Agurea palanka jaistera zihoanean argia joan egin zen eta Nikolasek burdinak apurtu eta, agureak eta sorginak ikusi gabe, ihes egin zuen. Nikolas oso larri zegoen, beldurrez gainezka. Atzerantz begira zihoan. Poliziak igo zuen pasabidetik jausi eta atzerantz bueltatu zen. Pasabidea hasten





zen lekuan jende ugari, anbulantziak, poliziak... zeuden. Nikolasek zulo hori berehala estaltzeko agindua eman zuen eta, une horretan, anbulantzian igo eta ospitalera eraman zuten eskua ikusteko. Nikolasek hiru hilabete eman zituen ospitalean. Gero komisariara eraman zuten zer pasatu zen galdetzeko. Nikolasek dena kontatu zuen, baina ez zioten sinetsi eta kartzelara bidali zuten poliziaren hilketa leporatuta.



NATALIA CAMPO DOMINGUEZ

*Irabazlea 15-16 urteko sailean
Durango B. H. Institutua*



PANPIN HUTS BAT NAIZ

Aupa! Beno, ezer baino lehen neure burua aurkeztuko dut. Nire izena Kontxesi da eta Gorane Agirrezabalen panpina naiz, hobeto esanda, nintzen, orain ez dit-eta kasurik egiten, nahiz eta lehen haren panpinik kuttunetarikoen artean kuttunena izan. Nire bizimodua aspergarria baino aspergarriagoa da, egun osoak ematen baititut Goraneren logelan dagoen armairu horren apal batean beste hainbat jostailuz eta “pelutxez” inguraturik. Baina nire bizitza ez da halakoa izan beti, ez pentsa. Zuek hobeto uler dezazuen, neure historia kontatuko dizuet hasieratik:

Taiwaneko lantegi batean sortu ninduten, beno, ni eta ni bezalako milioika “klon”. Gero multzoka kamioi batzuetara sartu eta han egin nituen nire “bizitzaren” lehenengo egunak, bidaia luze batean Durangoko denda batera heldu arte (bitxikeri moduan esango dizuet zorabiatu egin nintzela).





Dendariak ni heldu bezain laster, bere esku goxoekin laztandu eta maitasun osoarekin erakustokian jarri ninduen. A, ze nolako denborak... Denda aurretik pasatzen ziren neskato guztiak kristalaren aurrean gelditu eta niri begira geratzen ziren liluraturik (erakustokiko jostailurik politena izango nintzen edo, eta horrek ni garrantzitsua nintzela pentsarazten zidan, oso garrantzitsu eta liraina).

Goiz batean Arrate izeneko andre dotore bat dendara sartu, eta Ismenerekin –nire dendari maitearekin– hizketan zebilen bitartean ni seinالاتu ninduen. Orduan Ismenek erakustokitik altxatu eta koloredun paper batekin inguratu ninduen kontu handiz.

Ez galdetu han, paper artean nengoen bitartean, zer gertatu zen, ez dut–eta ideiarik (agian lotan egon nintzen, ez dakit. Zuek zer pentsatzen duzue panpinok ez dugula eskubiderik zuek bezala lo egiteko ala?).

Dauzkadan hurrengo oroitzapenak zera dira, oi huak, barreak, musika... hau da, zaratak, festa–giro izugarria... eta Goraneren aurpegi ederra pozez beterik haren begi berdeek ni ikusi nindutenean, ni inguratzten ninduen paper koloreduna apurtu zuenean, bere familiak aho batez abesten zion bitartean:

“ ZORIONAK ZURI, ZORIONAK ZURI,
ZORIONAK GORANE, ZORIONAK ZURI !!! “

Egun hartatik aurrera banandu ezinak bihurtu ginen, egun osoa jolasean ematen genuen; Goranek asko maite ninduen, bai horixe! (Nola dakidan hori? Ba nabaritzen delako). Haiek bai egun dibertigarri eta alaiak... Edozer gauza emango nuke berriz ere denboraldi hura bizitzearen truke, benetan diñotsuet... Hura bai, hura poza!





Baina normala denez (nahiz eta nik ez ulertu zergatik), gauza onak bukatu egiten dira beti eta niri ere berdin gertatu zitzaidan. Nahiz eta plastiko-zati bat izan ez nintzen libratu, eta nire izugarrizko poz hura bukatzeko eguna ere heldu zen handik urte batzuetara, zoritxarrez.

Goranek 11-12 urte zituenean, gutxi gorabehera, gero eta gutxia-
go egoten zen nirekin, beste gauza batzuk egiten ematen zuen denbora eta ez ni zaintzen eta besarkatzen lehen egiten zuen moduan (orduantxe hasi zen nire bizitzaren etaparik txarrena, tristeena... oso txarto pasa nuen, bai horixe... eta izugarrizko depresioak izaten hasi nintzen).

“Zergatik? Zergatik?...” galdetzen nion behin eta berriz neure buruari. “Nola da posible pertsona bat hainbeste aldatzea egun batetik bestera?”. Baina iruditzen zitzaidan ez zegoela nire galderentzako erantzunik, ezta nire arazoentzako konponbiderik.

Oso oker nengoen, bai, aitortzen dut, bazegoen Goraneren aldaketa hori azaltzen zuen zerbait: N-E-R-A-B-E-Z-A-R-O-A ,
NERABEZAROA !!!

Nire lagun laztana etapa horretara heldu zen ni konturatu gabe, heltzen hasi zen, eta berak ere, nola ez, mundu guztiak bezala, panpinekin jolasteari utzi eta mutiletan eta halako gauzetan pentsatzen hasi zen.

Armairutik askotan entzun ditut Gorane eta Argiñe, bere lagun minaren elkarriketak; batzuetan negarrez, ...ai ama... gaur Koldo neska batekin musukatzen ikusi dut...zergatik ez naiz ni bere gustukoa? zergatik gertatzen zaizkit niri halako gauzak? ...ai ze zoritxarrekoa naizen...

ai,ai...; eta beste batzuetan pozez txoraturik, Argiñe, badakizu zer? Gaur Aitorrekin institutuko pasiloan gurutzatu naizenean irribarre polit baino politago batekin agurtu nau... ah ze zoriontsua naizen! ...ah ze guapoa den... zelako begi ederrak dituen... gutxi falta izan zait momentu horretan bertan zorabiatzeko...

Ez diot nerabezaroa polita ez denik, baina ados egongo zarete nirekin oso “gauza arraroak” egiten direla esaten badut. Goranek, adibidez, oso umore-aldaketa bat-batekoak ditu eta gauez ere, behin baino gehiagotan sumatu dut musika entzuten eta negarrez, batzuetan, nik uste, arrazoirik gabe.

... Bai, zin dagizut,
ez dizudala inoiz gezurrik esan eta
zaude ziur,
ezin izango zaitudala ahaztu inoiz.
Aitortzen dut,
izan zarela ene bizitzaren onena ...

Abesti hau edo antzerako beste bat entzun eta, hara bestea, negar eta negar! Uste dut jendeak arrazoia duela gazteak zoratuta daudela esaten duenean... gizajoak!

Nire lagun maiteak jadanik 14 urte ditu eta ez dit begiratu ere egiten, baina ni, hala ere, oso pozik nago, berriz ere ilusioz beterik. Zergatik? Arrate berriro haurdun dagoela entzun dudalako, neskato baten zain, horrek esan nahi du jaiotzen denean berriro ere lagun bat



izango dudala jolasteko, ondo pasatzeko. Berriro norbait nitaz arduratuko da, berriro maiteko naute! Baina hori bai, bakarrik nerabezarora arte.

Nik, bitartean, gazteen “arrarokeriak” jasaten jarraituko dut eta Goraneren ahizpa jaio eta urte batzuetara zoriontsua izango naiz lehen-go moduan, eta gero, bera ere nitaz ahazten denean... beno, ordurako jada zeozer bururatuko zait, ezta?

Nahitaez panpin huts bat naiz, panpinon bizitza horrelakoa da, eta nik lehenbailehen onartzen hasi beharko dut. Agian holan gutxiago sufrituko dut.



GONTZAL ALKORTA GARAI

*Akzesita 15-16 urteko sailean
Kurutziaga Ikastola*



ZORTZI URTEZ AMESTUTAKO ITZULERA

1988ko ekainaren 10a zen. Treneko leihotik, urrutira, etxebizitzara altuak ikusi nituen eta, berehala, Bilbora iristear geundela zioen neska baten ahotsa entzun nuen bozgorailutik. Geltokira iristean, nituen gauza bakanak sorbaldan hartu eta niretzat ezezaguna zen hiri hartako kaleetan zehar abiatu nintzen, alde batera eta bestera zebilen jendearen artean nahastuz.

Noraezean nenbilen, hankei nire etorkizuna erabakitzen utziz. Oharkabea, tren geltokitik gehiegi urrutiratu gabe, okindegi baten erakuts leihora begira jarria nintzen. Baina nire begiak ez zeuden hango opilei zuzendurik, kristalaren beste aldean zegoen mutiko gazteari so baizik. Ispiluan begiratu eta hogeitaz urte lehenagoko nire irudia ikusi banu bezala izan zen. Amaren gonari tiraka ari zitzaien hiruzpalau urtetako haur hark nire haurtzaroa ekarri zidan gogora; nire familia, nire lurra, itsasoz bestalde eraman ninduen istorioa...

Marrakex-en jaio nintzen, Marokoren ekialdean kokaturik dagoen hiri batean, Hejira-ko -musulmanen egutegia- 1983.urtean (kristau egutegiko 1964. urtean). Guraso eta bost anai-arrebekin bizi nintzen, bi logela baino ez zituen etxe txiki bezain zahar batean. Aitak irabazten zuenarekin tripetako hotsak isiltzeko lain ez eta, nik, seme-alaba guztietan zaharrena izanik, txikitatik hasi behar izan nuen, han-hemenka, ahal bezala, sosak eskuratzen: atzerritarrei mota guztietako tramankuluak salduz etab.

Oso gaztetatik entzun nuen Europa izeneko lurralde batez hitz eginen. Jendea bertara joaten zen, antza denez, miseriatik ihesi, bizimodu hobe baten bila. Gauetan, oheratu ondoren, begiak zabalik, baina erre-alitate gordinetik urrun, lurralde harekin amesten nuen, txirotasunik ezagutzen ez zuen lurralde harekin. Egunekeo unerik atseginena izaten zen, errealitatetik ihes egin eta paradisuko ateetan aurkitzen bainintzen. “Egunen batean Europara joango naiz eta nire familiarentzat nahikoa diru irabaztean, itzuli. Orduan akabo larritasun guztiak! Akabo miseria hau!” pentsatzen nuen nire baitan. Horrela igaro nituen haurtzaro nahiz gaztaroko urteak, janariz baino, ametsez elikatuz.

Oraindik xehetasun guztiekin gogoratzen dut anaia Mohamed eta ni, itxaropena Europan zuten beste bost lagunekin batera txalupa hartan, txalupa madarikatu hartan, itsasoratu ginen gaua. Nik atzera begira jarraitu nuen itsasoan barneratu ginen arte, senitartekoei azken agurra luzatuz eta nire sorterrinari, nik uste baino denbora gehiagorako bistaz galdu nuen lurrari, azken begirada eskainiz.



Isilik egin genuen bidaiaren gehiengoa, inor ezer esatera ausartu gabe. Sekulako hutsunea sentitu nuen nire barnean, nire zati bat jada atzean utzi genuen lurraldean geratu izan balitz bezala. Izan ere, Europarantz nindoan, baina nire bihotzak itsasoaren beste aldean jarraitzen zuen.

Orduak aurrera joan ahala, itsasoa gero eta haserreago zegoen, eta lehendik gure barnean genuen egonezinari itsasoaren mehatxua gehitu behar. Olatuak handiagotuz zihoazen. Batzuk nire herriko meskita baino altuagoak zirela ere esango nuke. Agian, lehenago sekula itsasoratu ez nintzelako diot hau. Agian, anaia olatu horietako baten erruz hil zelako. Oraindik ere, egun madarikatu hartatik zortzi urte igaro direnean, gertakizun haren oroitzapen mingotsa burutik kendu ezinik nabil. Ametsetan anaiaren irudia ikusten dut, Gibraltarko itsasarteko uren bortizkeriatik ihes egin ezinik, eskua luzaturik, laguntza eske, nire izena oihukatuz. Izerdi patsetan esnatzen naiz, dardaraka eta “ezin izan zuen ezer egin” neure buruari behin eta berriz errepikatuz, errudun sentiarazten nauen sentimendua guztiz uxatzea lortu gabe.

Ez nintzen arriskutik at sentitu hankak lehorrean izan nituen arte, Cádiz-era iritsi arte. Ordu batzuk beranduago Bartzelonara eramango ninduen trenean nengoen, klaserik baxuenari zegokion bagoian. Bertan hiru astez aritu nintzen fruitu bilketan, sortaldean lehen eguzki printzak azaltzen zirenetik eguzkia ezkutatu arte jo eta su lanean. Ez nuen denbora asko behar izan hura ez zela nik amestutako paradisua ohartzeko. Izan ere, arrazakeriaren ondorioak pairatu behar izan nituen lehen une-





tik: gainerakoek baino soldata baxuagoa, irainak eta, denak aipatzen hasi ezker, amaiezinezko zerrenda bat. Afrikar ugari ezagutu nituen bertan, guztiek ere nire asmo eta ilusio berberengatik borrokatzen zirautenak. Euskal Herrira joateko aholkua eman zidaten, bertan afrikarrak egoera hobean omen zeuden eta. Nire hasierako asmoa ez bazen ere, lagun hauen gomendioa jarraituz, Euskal Herrira zuzendu nituen nire urratsak.

Horrela iritsi nintzen Bilbora, zure herrira. Horrela, Bilbon igaro nituen zortzi urteetan bizi izan nintzen San Francisco auzora. Horrela, egurrezko ezkilara erdi puskatu batzuk zuzentzen zuten etxe zahar hartara.

Nire ametsetatik gero eta urrunago zegoen gizarte bat ezagutuz joan nintzen eta zalantzan jartzen hasia nintzen hura nire herrikoa baino bizi-modu hobea ote zen. Izan ere, aberats asko zegoen, bai, leku guztietan bezala. Baina ez ziren falta sabelaren eskaerak ase ezinik zebiltzanak ere, eta niri egoera hura bizitzea tokatu zitzaidan. Lana aurkitzeak sekulako buruhaustea sortu zizkidan, azalaren koloreak asko egiten baitu horrela-koetan eta inor ez baitzegoen ni bezalako mairu bati aukera bat emateko prest. Beste irtenbiderik ez eta, herritar askok bezala, gauzak saltzeari ekin nion: ordulariak, iratzargailuak, alfonbrak, koilareak ... denetarik.

Arrotza sentitzen nintzen. Arrotza eta mesfidantzaz beteriko begiradez josia. Hain zen bestelakoa dena! Ohiturek, sineskera, hizkuntza...hala ere, afrikar mordoa ezagutu nuen, auzo hartan bizi baitziren Bilbon zeuden etorkin gehienak, eta horrek etxetik gertuago sentiarazten ninduen. Hauetariko asko beraien sineskerak alde batera utzi eta berta-





kotu baziren ere, nik ahalik eta tinkoen eutsi nien nire ohiturei. Izan ere, sarritan entzun zenidan bezala, ahal bezain azkar itzuliko nintzen nire herrira, guztiz onartzen ez ninduen gizarte hartatik urrun.

Islamaren jarraitzaile izaten jarraitu nuen, bere arauak ahalik eta zintzoen betez. Ramadanean –Mahomatar egutegiaren bederatzigarren hila-betean– gehitu egiten zen iritsi eta berehala sentitzen hasi nintzen herrimina. Gutariko batzuk itzuli egiten ziren, musulmanontzat hain berezia den garai hori familiarrean igarotzeko. Nik, ordea, Euskal Herrian, ospatu nituen bertan igarotako zortzi urteetako Ramadanak, San Francisco auzoan bertan zegoen meskitan, ni bezala, itzultzeko betarik izan ez zuten afrikarrekin bildurik. San Franciscon ezagutu nituen afrikarrak eta meskitan, La Mekara begira, otoitzean bildurik ematen genituen uneak izan ziren, Marrakex-era igorritako gutunekin batera, urte guzti horietan nire herri eta kulturarekin izan nituen harreman bakarrak.

Maiz idazten nien etxekoei, ahalik eta gehienetan eskutitzarekin batera diru apur bat bidaliz. Orri zuri baten aurrean eseri eta boligrafoa astintzen hasten nintzen bakoitzean gela hotz haren hormetatik ihes egin eta nire etxeraino bidaiatzen nuen. Eskutitzaren bukaerak, ordea, amestetatik esnarazten ninduen.

Lehen unetik gizarteratzen saiatu nintzen, nire ohiturak baztertu gabe baina euskal kulturaz aberasten ahaleginduz. Bertako jende asko ezagutu nuen, eta euskaraz ikasteko saiakeretan ere ibili nintzen. Bartzelonan ezagututako afrikarrek esan bezala, gure herritarren egoera hobe zen Bilbon Bartzelonan baino, hiri txikiagoa delako eta atzeritar

gutxiago daudelako, edo jendea irekiago delako agian. Batek daki. Hori da nire esperientziaz baliatuz eta nire iraganaz oroituz esan dezakedana behintzat.

Hala ere, ez ziren falta beltzaranago izate hutsagatik mamutzar bat banintz bezala begiratzen nindutenak eta sentitzen nintzena baino arrotzago sentiarazten nindutenak.

Zortzi urte behar izan nituen, izerdi eta malko ugari isuritako zortzi urte, nire herrira itzultzeko. Apurka-apurka, ogerlekoz ogerleko, zerbait aurreztea lortu nuen, inolaz ere ez txikitako ametsak asetzeko adinako dirutza, baina bai nire herrira itzuli eta familiari denboraldi batez lasaixeago bizitzeko aukera eskaintzeko adina, bederen.

Hainbeste urte hemendik kanpo eman ondoren, sustraiak inon erraturik ez banitu bezala sentitzen naiz, ez hemengo eta ez horko. Baina nire sorterrian nago berriz ere behintzat. Nire asmo berberarekin Europarako bidea hartu zuten asko eta askok, ordea, ez du aukerarik izango bere herrira itzultzeko, bizitza osoan itxaropen horrekin jarraituko badute ere.

Gaztaroan Europarekin amesten nuen bezala, orain mundu justuago batekin egiten dut amets, behartsu eta aberatsik gabeko mundu batekin, arrazakeriarentzat ateak hertsia dituen mundu batekin.

Hemen duzu bada, Itziar, agindu nizun bezala, nire istorioa, milaka afrikarren bizitzetan errepikatzen den istorioa. Orain argitaratu ahal izango duzu eta jendea berarengandik hain urruti ikusten duen errealtate hori gerturatzeko balioko duelakoan nago.



Ez nuke eskutitz hau zuri eskerrak eman gabe bukatu nahi, bizi-
tzako une zail horietan behar izaten den laguntasuna eta elkartasuna
eskaini didazulako.

Nire eskerrik beroenak

Musu bat.



JOANA ETXEBARRIA URANGA

*Aipamen berezia 15-16 urteko sailean
Kurutziaga Ikastola*



BIZITZAK EMATEN DITUEN SORPRESAK

*H*emen nago, telebistaren aurrean, zer egin ez dakidala. Ez dakit zer gertatzen zaidan, baina ez nago gustura eta ez dakit zergatik. Atzo arratsaldean gauza izugarri bat gertatu zitzaidan, edo hobeto esanda, orain arte sentitu ez nuen zerbait sentitu nuen.

Arratsaldeko zortziak aldera ziren, eta ni egunero legez, Martinen tabernan nengoen garagardo bat edaten. Baina bat-batean, bera taberna sartu eta nire ondoan eseri zen. Kafe bat eskatu zuen. Horrek pixka bat harritu ninduen, baina beno, nik egunkaria hartu eta berriak ikuskatzen hasi nintzen. Ordu erdira gutxi gora behera ordua galdetu zidan, eta aurpegira begiratu nion. Ez dakit azaltzen zer sentitu nuen momentu hartan, baina izugarria izan zen.





– Ordua esango didazu, mesedez?– galdetu zuen berriro, eta nik erantzun egin nuen. Bederatziak aldera bera eta ni bakarrik geunden tabernan, astelehen buruzuria baitzen. Beno, bera, ni, eta Martín, tabernaria. Hirurok berbetan hasi eta 11k arte bertan egon ginen, Martinek oso berandu zela esan zuen arte, eta taberna itxi zuen. Tabernatik irteterakoan berriro elkar ikusiko genuela esan zuen, eta nik baietz. Baina orain ez dakit ikusi nahi ote dudan. PUF! Kristoren buruhaustea nirea! Hain da..., ez dakit! Bere begiak, bere ezpainak, bere ahotsa,...

RING-RING! RING-RING!

– Bai?

– Kaixo maitea, non sartu zara egun osoan?

– Kaixo Maider. Etxean nago,..., gaixorik!

– Gaixorik? Zer gertatzen zaizu ba?

– Beno, gertatu gertatu,..., ezer ez, baina,... buruko mina daukat!

Eta kalentura! 38,5

– Bai? Medikuarengana joan zara? ondo zaude? zer gertatzen zaizu? ondo zaude? zure etxera joan nahi duzu?

– Ez, lasai, oraintxe hobeto nago eta lasai, ez duzu etorri beharrik. Gainera orain ohera nindoan. Eta seguru bihar hobeto egongo naizela.

– Ez dakit, ba,..., bihar hobeto ez bazaude medikuari deitu, ados?

– Bai, lasai, ez kezkatu.

– Beno ba, musu bat eta bihar arte.

- Bihar arte? Bihar ere etxean geratu beharko naiz.
- Bai, baina zu lasai, bisitatxo bat egitera joango natzaizu.
- Ez duzu zertan, lazтана, ondo nagoela!
- Baina ez zait batere kostatzen, eta gainera zu ikusteko gogo handia daukat.
- Baina..., beno, ondo da.
- Bihar arte orduan
- Bai, agur

Kaka! Kaka, kaka, eta kaka! Orain zer egingo dut? Kaka! zergatik esan diot gaixorik nagoela? Nori eta Maiderrri! Gezurra esaten diodan lehenengo aldia izan da. Zer egingo dut? Eta bihar ona datorrenean? Zigarro bat erretzera noa.

30 min beranduago....

Kaka! Hemen jarraitzen dut zer egin ez dakidala! Kaka! Maiderrekin bi urte daramatzat, primeran gainera. Orain zergatik gertatu behar zait hau niri? Maitemindu ote naiz? Ez dakit, baina kakanahaste handia daukat buruan. Martinen tabernara joango naiz, ia alkoholaren laguntzaz ideiak argitzen ditudan.

- Arratsaldeon Martín.
- Berdin, Aitor. Ze berri?
- Bada hemen, beti legez, garagardo batzuk hartzeko prest.
- Aizak, atzo hirekin hizketan egon zuan lagunak hitaz galdetu dik.



- ZER???? Eta noiz etorri da? Zer esan diozu? Seguru zaude?
- Lasai, motel! Zer gertatzen zaik ba?
- Niri? Ezer ere ez. (kaka, kaka eta kaka)
- Zortziak aldera etortzeko esan zioat, seguruenik hemen egongo hintzela.
- Eta ze ordu da?
- Zortziak hamar gutxi. Baina egon hadi lasai, ez duk-eta ezer txarrik gertatzen. Zer, garagardo bat orduan?
- Ez, zerbait gogorra.
- Aitor, zer gertatzen zaik?
- Ezer ez, baina,..., Maiderrekin egon naiz, eta haserretu egin gara.
- Beno, lasai txo, seguru bihar bertan konpontzen duzuela. Orduan birra bat, ez?
- Bale, bale
- (Kaka! eta orain zer egingo dut? Eta zertarako nahi ote nau? Zer esan behar dit? Kaka! zerbait txarra, seguru. Eta nik zer egingo dut? Eta,..., eta,...)
- Arratsaldeon! Aitor, ezta?
- Bai.
- Zurekin hitz egiteko gogo neukan, eta lehen etorri naiz, baina tabernariak zortzietan hemen egongo zinela esan du, eta arrazoi osoz gainera!

- Eh..., bai,..., noski,... Martinek! Eta, zer esan behar didazu ba?
- Beno, hemen,..., ez dakit. Arazo txiki bat daukat, baina,... ezin gara leku lasai baterago joan?
- Nahi baduzu, ni hemen alboan bizi naiz. (Kaka! zer egin dut? Aitor, pentsatu hitz egin baino lehen!!)
- Bale, ba ni prest nago zure etxera joateko.
- eejjjjjjj, goazen ba!
- Zerbait hartu nahi al duzu?
- Ez, eskerrik asko
- Zertaz hitz egin nahi duzu ba?
- Ba, badakit zu ez zarela nire penak entzuteko aproposena, atzo bertan ezagutu baitzintudan, baina,..., norbaitekin hitz egiteko premia neukan,..., eta zugar pentsatu dut.
- Lasai, elkar ezagutzeko denbora izango dugu eta. Zer gertatzen zaizu ba?
- Ba,... lanetik bota naute! Eta ez dakit zer egin!
- Lasai, ez da ezer gertatzen, bilatuko duzu beste lanen bat.
- ...
- 3h eta 15min pasa eta gero
- Puf! Hamabiak jotzeko dira eta!
- Beno,... nahi baduzu hemen gera zaitezke gaua pasatzen. (kaka, kaka, eta kaka! Hau duk hanka sartzeko duzun gaitasuna, Aitor!



– Ba,..., ez dakit,..., ez dut molestatu nahi.

– Tontotuta zaude ala zer? molestatu! okurritu ere! zer, orduan geldituko zara? (ezzzzzzzzzzzzz, mesedez,....., ezzzzzzzzzz)

– Beno, ba, ..., bale!

Hurrengo goizean, 11:30ak aldera

– Egun on Aitor! Beno, etxera noa dutxa bat hartzera, gero elkar ikusiko dugu?

– Ba,... ez, ze,... zera,... BAI! (ze koño!) Bostak aldera Martinen tabernan egongo naiz. (Ez! Kaka! Maider etorriko da!)

– Beno, ez! Ezin dut. 6:30etan hobeto.

– Bale ba, gero arte!


– Agur, bai.

Dutxa bat hartu eta gosaldutik ondoren:

Hemen nago, tontotuta, telebistaren aurrean, baina gauzak argiago ikusten ditut. Gau honetan inoiz sentitu ez ditudan gauzak sentitu ditut. Inoiz ez nuen pentsatuko honelako zerbait gertatuko litzaidakeenik, baina horrela da bizitza! Berak musu eman didanean ezin izan naiz gelditu, eta egia esan, oso ondo pasa dut. Inoiz ez bezala! Maiderrekin hitz egingo dudala erabaki dut, eta dena azalduko diot. Lehenengo eskerrak emango dizkiot, oso zoriontsua izan bainaiz berarekin egon naizen bi urteetan, baina orain nire bizitza aldatu egin da, eta beste pertsona batetaz maitemindu naiz. Ez dakit hau betirako izango den, baina badakit. Orain



Mikel maite dut, eta nik uste dut lehenago edo beranduago Maiderrek ulertuko duela, izan ere oso pertsona ona da. Eta nork daki, agian, betirako lagunak izan gaitezke!



Luis Mari Mujika Urdangarin

Irabazlea 18 urtetik gorako sailean



HILDAKOAREN SOLASAK

*F*ermin Olaskoaga zurgina, pinuz eginiko hilkutxa bizkarrean duela, sartu da gelan. Kaxilda neskameak baldarki itxi dizkit begiak. Hala ere, ezkerreko begiaren betiletatik, sare mehe baten zehar gisa, ingurukoen mugimendu, aiene, sasi-negar, errezo eta beste katramilak jarraitzen ditut.

Kaxildak ispilua hurbildu dit ezpagnetara, oraindik arnas aztarnarik ba ote dudan ziurtatzearren. Ispilua ez da zipitzik lurrundu. Bai, ongi hila nago ene neskame eta ingurukoentzat...

Eguzkiaren izpiak bertikalki sartzen dira gelako goi leihotik nire betarte, kokots, bular, sabel, belaunburu eta orkatiletara, argizko tira bitxiak marraztuz. Argi-unetan nabarmen gelako hautsa, eta xomorro eta eulien hegadak.

Itxuraz, oso serio eta zurrun gelditu naiz hilda, ezen bisitariak halako muzin bat egiten dute ni ikustean, aitaren baten imitnzioa egin ondoren. Xingola dut loturik hanketan, eta zapi zuria kopetan. Joxepa Sastrenekoa, Leona Arriolakoa, Anastaxia Istilletakoa eta Madalena

Albarorenekoa (aih, nere ametsetako Madalena kuttuna!) hemen daude alboan arrosarioa eta letania zaluak latinezko ele-mele gaitzetan esaten

Urbedeinkatuzko edalontzia ere, barruan erramu-orria duela, aldamenean daukat. Anastaxiak ur-tanta ugariak bota dizkit gorpu gainera astitsu. Kasu, tanta bat ezkerreko begira erori zait, bestea sudurre-ra. Sudurrekoak azkura gisako ukitua egin dit (“Nolatan azkura? Zer esaten ari naiz... Ez al nago, bada, ongi hilda?”).

Madalenak, berriro, ene galtzetara so egin du. Itxuraz, eztaietan jantziriko galtza beltz-urdinok oraindik aspaldiko arraia mantentzen dute. Madalenarekin ordeztu, Iñaxirekin ezkondu banintzen ere, nire lehen andregai paregabea Madalena izan zen. Berak ongi daki... Madalenak zenbatetan ez zizkidan, emaztearen ezjakinean, bere izter limuriak, bular oparoak, beso luze-linealak, kadera sentsuala ukitzen utzi... (“Baina, zertara datoz oroi guzti horiek orain ongi hilda banago?”).

Fermin zurginak ene gorpua zerraldoan astokiro sartu du. Ez izan dudarik Fermin beti asto izan dela bizitza guztian. Une honetan ezin zitekeen bestela portatu... Itxuraz, nire eskuek ez dute kaxa beltzean eroso sartu nahi izan; ezta oinek ere, zurgin astazakilak jo egin bainau galtzarbetan eta ezkerreko saihetsean gorputz nirea hertsatu nahiaz.. Kolpe batez behartu dit soina zerraldora, hankaz zapaldu ene zilbor gaina sabela hazita daukadalako. Zurginaren aurpegiak “alu honek, hilda ere, setati eta kaskailu jarraitzen dik!” esan bide du... Betazalak bere hatz baldar eta lodikoteez berritxi dizkit. Astoa!



Euli batek nire kokotsetik leporako bidea korritzen du. Gero sudurzuloetara igotzen da, eta ondoren ezker masailako arrasto itsusiaren zimurretan gelditzen. Berrero, azkuratxo bat edo susmatu dut... (“Baina, zelatan azkuratxo? Ez al nago bada ondo hilda”).

Gelan mater amabilis, mater admirabilis, mater boni consilii gisako otoitzak entzuten ditut nagi. Ur-bedeinkatuzko zipriztinek orain nire zerraldo-oholak bustitzen dituzte (“Madalena, zu bai zinela maxusta eta dultzea... Zelako astinaldiak sentitu zenituen nirekin!”, “Ia beti gona urdinez jantzia hurbiltzen zintzaidan”, “Hatzak zuriak zenituen, masailak sagarraren usain basatiz, ezkerreko diti ondoan niretzat apartekoa zen orina zeneukan...”, “Iñaxi nire emazteak (Jainkoak zeruan ukan dezala!) ez zuen jakin, ezta susmatu ere, nik biluzik ezagutu zintuala”, “Emaztea ez zitzaidan inoiz biluzik argitan entregatu...”, “Madalena, zu bai, ordea!”).

Hilkutxaren zirriztu batetik ikus dezaket orain Madalenak sila nolatan hartzen duen, eta esertzen den. Hemendik errepara ditzaket bere belaunburu sendoak, izter zuri-zoztorrak, kaderaren limuritasuna. Madalenak, oraindik berrogehita zortzi urte baino ez ditu, eta xarma ederreko anderea dago (“Ze koño hil naiz, bada, hain goiz...?”).

Anastaxia, letaniak amaituta, Oremus, concede nos famulos tuos, quaesumus... delakoa murmurikatzen hasi da latinez, nahiz hizkuntza jakin ez, esaera zaharrak dionez. Ingurukoek, beste behin, Ur-bedeinkatua bota didate hilkutxa gainera.



Ondoan entzun dudanez, goizeko bederatzi eta erdiak ziren hil nintzenean. Estanix, ene iloba, arrosario bukaeran azaldu da. Kaxildak berehala pentsatu du: “Gazte arraio honek, ze kristo egiten din hemen, osaba ez baitin azken bost urte hauetan hiru bider ere bisitatu...!”, “Itxuraz, heredentzia usnatzen din urrutitik. Heredentzia osoa, ordea, nerea dun, bere neskame leiala urte anitzetan izan naizelako...!”.

Estanix ilobak Kaxildari hilkutxa irekitzea agintzen dio, osaba maitea azkenekoz ikusi nahi duela eta. Kaxildak amorrazioz so egiten dio, baina esana betetzen.

Zerraldoaren tapakia jasota, ilobak ene betartea ikusiz:

– Osaba sano hilda dagoela uste al duzue? Ahoa zerbait irekia dauka; ezkerreko begian halako irriñoa du.

– Letxes! Isilik egon hadi! Nola egonen duk bizirik! Nik bart eman nion belar–katilukadaz, prezeski, nahita ez, hil beharra zeukean.

– Zein belar–katilukadaz? –erantzuna ilobak. Kaxildak mantalaren–ertza pasatzen du ezpain zimurtsuetatik–. Noski, nik emanikoa ziu–rri eta irakabelarrez eginiko edaria (“Besterik ez zian merezi... Aluak, hainbeste urtetan berari zerbitzen egon eta diru guztiak parrastatu diz–kik Madalena eme lizun, bargasta, urdanga horrekin”, “Ez zegok eskubiderik horretarako”, Hiretzat ere ez dik deus utzi...”). Elkar–rriketa, noski, Kaxildak ilobari pasiloan egin zion, beila–gelako atsoek eta Madalenak ezer entzun ez zezaten.





Orain salvea eta kredoa Aita Santuaren asmoetara errezatu dituzte Anastaxiak eta beste atsoek, errezoen murmurioa gelako isilunean adierazgarriagoa eginez.

Niri gaur, hil ez banintza, ferira joatea tokatzen zitzaidan zekorra saltzearren. Diruaz Madalenaren gutixia bereziak beteko, nituen, baina alferrik izan da guztia... Oraindik ez dakit, bada, garbi hil naizen ala hil nauten... Kaxildak herenegun eginiko taloa primerakoa zegoen; oraindik areago txorizoa, baina bart gaueko belar-zukua ze mikatza eta arraroa zegoen...

Une batez, Eternam habeas requiem eta Absolve, quaesumus, Domine, animam famuli tui... gisakoak entzuten ditut sotana luze eta beltzez jantziriko gizon baten ahotik. Negar-zotin batzuk ere aditzen dira ene ondoan.

Nire emazte Iñaxi, azken urteotan, urritz-makila bezain zimela zegoen. Oherakoan ez zituen galtzerdiak kentzen, ezta azpigona. Ni oraindik gizon sendo, bortitz, osasunjario nengoen. Orain, berriz, zurrun eta mugiezin (“Nola ez haiz egongo, bada, leloa? Ahantzi egin al zaik guztiz hilda hagoela eta ezin haitekeela mugi...?”, “Esan, zergatik lotu dizkidate xingolez oinok?”, “Zer uste dute, behin hilda, ostikoka, hasiko naizela?”, “Besoak, belaunak, hankak tenk dauzkat... Begietan dabilkidan euli aspergarria ere ezin dut uxatu...”).

Madalena, orain, kadiratik zutitzen ikusten dut. Nire heriotzak. ez dio galdu ohiko xarma eta kolorea Ausaz, herentzian du amets.

Badlrudl alproJa naizela dioela bere arrimoan ia dena parrastatu dudalako (“Gizon bezala ez du inoiz aparteko baliorik izan... Eskasa izan da”). Bera ere haserre da nerekin. Aski da bere ezpainetan erreparatzea. Ze muzindura!

Iñaxi zenak, berriz, beste mundutik (ni, orain, itxuraz, bi munduen erdian natza...) “erruki haut” dasaيدا. “Nora joan haiz hortik barrena arima erratiaz?”, Sukaldean, ukuiluko ganbeletan, teilatu ertzean ibiltari sumatzen diat hire arima...”, “Noiz hator hona?”. Pater noster qui est in coelis...

Leioha irekitzen da, bat-batean. Haize-bolada zakarra sartzen da. Nire hilkutxa ondoko bi kandela. itzali dira. Leihatiltan kolpetxoak, kristaletan dardarizoak entzuten dira. Panem nostrum quotidianum da nobis hodie...

Paisaiaren lilura ez da apaldu ni hiltzeagatik... Zuhaitzak orritan, zuhaixkak ihintzetan, atariko jeranioak loretan daude, beste egunetan bezala. Behin eta berriz esan nien, bada, Arizkondietako haritzei ni hileta-egunean makurtu egin behar zirela; berdin jalgi nion bideko ezpondari -alegia, leherturik, lurrera etorri behar zuela, eta Latseta errekarari uholdez gainezka egin behar zuela-. Lepazuri behiari nire ehortze-egunean esnerik ez emateko ere iragarri nion; gaur, ordea, hamabi litro-esne hustu ditu pertzara. Denak eskergabeak, sentimengabeak izan dira nirekin...

– Madalena, masusta horrek, esaiozu Lepazuriri bihar, gutxienez, esnerik ez emateko.



Berdin diotsat Latseta errekarri; urak plazaraino bota ditzala herri-
tarrek “zergatik da hau guztia?” galde egin dezaten. Eta neskameari:
“Kaxilda, ezln dut iksui atarlko intxaurrondoa lehen sendo eta orritsu...
Edonork esanen du etxeko nagusia, hilda orde, ezteietan dagoela”.

Orain Leona Arriolakoa zutitzen da, elizarako bidean jartzea-
rren. Azkeneko doluak ematen ditu. Nori, orde? “Sentitzen dut
biziki” Madalenari, begiak ia lurretik jasotzen ez dituela. Eta, gero,
ezpainak apenas mugituz, murmurikatuz bezala, bere gisa isilean:
“Alferrik zaude errezatzen, Madalena”, “Orain ordaindu beharko
ditu zerraldokoak zurekin eginiko ohakeria guztiak. Ziur nago Iñaxi
emazteak ez dizkiola barkatuko mundu honetan eginiko ezkontza
nahasteak...”.

Madalenak haserre bezala so egin dio atso lotsagabeari, 111:yz
pentsatua susmatu bailion. Leonak berriro:

– Ohartu naiz leihoa haize-boladaz zazpi aldiz ireki dela. Iñaxiren
arima ingurutik dabil, antza .

– Ferminen arlmak ez du atsedunik –oraingoan Joxepa Sastre-
nekoak bere baitan-. Zuen bekatua desestali da. Haragikeria lizunak ez
ezik, Ferminekin odolkidekeriak egin dituzu, Madalena, Ferminen arre-
ba borta baitzara. –Infernua merezi duzue. Zuen bekatuek nekez uka-
nen dute Jainko handiaren barkaziorik, senideen arteko haragikeriaz
anaia kondenatu duzulako betiko... Irten zaitez gela honetatik, joan zai-
tez hemendik Intxisuren kobazuloraino.



Madalena zurbil jarri da, hormetako karea baino zuriago. Berehala ohartu da bere anaia naizen honekin eginiko bekatuaren ikaragarriaz, eta negarrez hasi da.

On Prudentzio apaizak azken aldiz sartzen du hisopoa ontzian, eta ur-igurtziak nire zerraldora eta ingurukoen sudurretara banatzen, errezo ulergaitzak esanez.

Segidan, inguruko hiru gizon sendokote eta iloba Estanix nire hilkutxa astuna mugitzen, eta besagainetara altxatzen, hasi dira elizarako




bidean. Madalenak, zinez, aurpegi txarra dauka, gelako gehienek igarri dituztelako Leonaren salaketak. Nik, noski, banekien Madalena nire arreba borta zela, baina, berak ez... Horregatik ez du egin intzestozko bekaturik, ezjakinean zegoelako.

Azkenean, elizarantz naramate. Bideko potxingoetako igelek kantua eten egiten dute ni igarotzean. Kaxildak, dagoeneko, teilatutik kendu du teila gorria nire arimak goiko bidea erosoago dezan, baina nireak ez du irtenbide egokirik izanen zerurantz. Bekatu larregi egin dut bizitzan. Iñaxi engainatu dut. Baita Madalena gajoa ere.

On Prudentzio apaizari sermoian Jainkoa aita dela esaten entzuten diot, eta gizonen bekatuak, burdin gorria bezain gorriak izan arren, Jaunak guztiak xahutzen eta zuritzen dituela bere urrikalmendu azken-gabea... Nik lehenengo aldiz, esperantza apur bat sentitzen dut, eta kanposanturako prest jartzen –lurretik sortua naizenez lurrera itzultze-arren behingoz–.

Perizene baserrian Kaxilda neskame gajoa bakarrik gelditu da hiletara joan gabe, bazkaria bost apaiz eta hamabi ahaideentzat prestatzen.

bertso
paperak



Mikel ZUMARRAGA Azkarate

*Irabazlea 11-12 urteko sailean
Kurutziaga Ikastola*



BERTSOAK


Kostan dago Getaria
hemen Mañaria
leku polita da ta
gure Euskal Herria
Munduan ez dago ta
leku onagorik
Nire bizi guztian
ez noa hemendik

Jakingo duzu asko
probintziei buruz
irainduak gaudela
jakingo duzu zuk
Kanpoko gobernuak
nahi gaitu izorratu
gu sortzen joan garena
poliki ezabatu





Gurea euskara da ta
hizkuntza bapoa
baina oraintxe dauka
kriston arazoa
Kanpoaldeko jendeak
nahi du izorratu
Gu sortzen joan garena
poliki ezabatu



LAURA IRAURGI IZURZA

*Irabazlea 13-14 urteko sailean
San Jose - Jesuitak Ikastetxea*



EUSKERA ALA ERDERA?

Euskal Herriko gazte
eta zahar dabil
erderaz hitz egiten
gustora asko trankil
Eta euskera dago
gaixo eta zurbil
baina guk ez dugu nahi
euskera daiten hil

Jendeari ez zaio
kezkarik ageri
ez e(g)iozue egin min
gure amatxori
Erderaz hitz egiten
ez utzi inori
gure hizkuntza da (e)ta
ohore euskerari





Neska-mutil guztiak
erdera ezpainetan
eta gure euskera
gure bihotzetan
Euskera ez da galduko!
zerbait galtzekotan
erdera izan beharko
gurea ez baitan



OINATZ URIBE PEÑALBA

*Irabazlea 15-16 urteko sailean
Kurutziaga Ikastola*



BERTSOAK

Duela hogei ta hamasei urte
etorri nintzen mundura
ta txikitatik sentitu izan dut
nik mina eta tristura.

Aitak bakarrik utzi gintuen
ez bait genion ardura
momentu haiek gogoratean
sartutzen zait negargura

Ikasteari utzi nion
hamabi bat urterekin
lanean ahalik eta azkarren
hasteko asmoarekin.
Zortea ere ez zen ibili
garai haietan gurekin
jateko ere ez baikeneukan
gure soldata biekin

Uste genuen gauzak txarrera
ezin zitezkeela joan
baina amari aurkitu zioten
gaixo txar bat bihotzean
tratamendua ordaindutzeko
dirurikan ez geneukan
eta horrela alde egin zuen
amak nire albotikan




Hala ere gauzak hobetu ziren
ondorengo urteetan
lanpostu on bat aurkitu nuen
enpresa handi batetan.
Gehiago ezin nuen eskatu
garai zoriontsu haietan
lehenagoko gauza guztiak
ahaztu nituen benetan

Poztasun honek ez zidan iraun
hala ere denbora asko
enpresa diru gabe geratu
ta itxi zuten betiko.
Kale gorrian geratu nintzen
lurra jota eta ziplo
burua berriz altxatutzeko
ere ez neukan indar nahiko





Ordutik ez dut izan lanean
berriz hasteko indarrik
eta kalean bizi naiz orain
ni arrazoi horregatik
sufrimendu hau merezitzeko
zer egin ote nuen nik
inork ezin baitezake esan
ondratua ez naizenik



JULEN PRADERA OLASO

***Irabazlea 17-18 urteko sailean
Frai Juan de Zumarraga Institutua***



ZORIGAITZA

Txikitatikan bizitzak niri
emana zidan lepoa
ordurako ia bihurtu nintzen
bai bakarlari petoa
isiltasunez negar eitea
nuen oso gogokoa
ta naiz ta niri ia ez axola
batere ingurukoa
zu agertzean berreskuratu
nuen bizitzan jokoa

Bideak kendu zizkidan ama
aita ta arreba zaharra
horretarako behar izan zen
soilik istripu bakarra
nahiz ta aurrera egitea zen
niretzat ideia txarra
behintzat pizturik mantentzekotan
nire bizitzaren garra
ezinbesteko egin zitzaidan
zuk emandako indarra


Bizitzeko be nik garai hartan
ez izan arren gogorik
zu ezagutu ta maitemindu
ez zen pasa denborarik
txoraturik ni gelditu nintzen
nahiz ta ez izan asmorik
zuk berriz nire arazoen berri
hasieratik izanik
ni maitatutzen saiatu zinen
beste denaz ahazturik






Nahiz zakarra ta tristea nintzen
nitaz zinen maitemindu
nire orduko itxitasunak
ez zuen bape lagundu
bizi poza ta alaitasuna
nigan zenituen landu
zure izanak lortua zuen
nire bihotza bigundu
maitasun horrek gure arima
beti elkartu izan du

Itxura zenez zoritxar dena
zegon iada amaitua
gure bizitza egongo bait zen
betirako elkartua
hala ta guztiz heldu zitzaigun
egun madarikatua
nire begiez ikusi nuen
zure gorputz akatua
handik aurrera nire bizitza
zegon guztiz bukatua





Zu joan eta hartu nuen nik
segidan erabakia
nire zeruan ez bait zen irten
berriz ere eguzkia
iada gainezka bait neukan guztiz
tristeziaren saskia
ezin nun jasan sentitzen nuen
nirekiko erruki
soka estutu, agurtu eta
bultzatu nuen aulkia



JULEN ZELAIETA IRIARTE

Irabazlea 18 urtetik gorako sailean



BERTSOLARI IZATEAZ ERDI DAMUTURIK

doinua: Bogart eta Bilintx

Bertsolari naiz eta nirekin
badut hainbat sufrimendu
leku askotan ezaguna naiz
naiz eta ez nabarmendu
baina famaren jantziak noiznahi
azukrea ematen du
Bertsotan hasi nintzen unea
ez du sekula atzendu
orduan nekez jantzi nezaken
gaur gainerik ezin kendu

Anonimoan bizi nahi nuke
utziko al dit norbaitek?
noan lekura noala ere
bertan ezin egon laket
marmar artean trufa izan nau
hainbat agure ta gaztek
bere bi begi salatariak
luzatu ere zenbaitek
askotan hitzek baino gehiago
dio begirada batek

Adinekoak agoantatzea
zer nolako panorama!
“-bertsolariak?, denak alperrak!”
“lotsagabeak, ai ama!”
alperrarena entzute hutsak
etsipenera narama;
lanean lana, etxean lana,
saioz saio ere lana...
inork baino lan gehiago egin
ta gainera alfer fama

Parrandan berriz, tragorik trago
koadrilakoei jarraika
ostatutikan ostaturaino
hurbiltzen zaizkit irainka
kaxero plantan “botzak bertsoa!”
hor hasten dira hamaika
le(he)n duina zen bertsolaria
gaur berdina ezin aipa
garai bateko errespetua
iseka bihurtu baita



Halare batzuk harrotu gabe
eskatzen dute baimena
desio eta kutizi dute
eurei kantatzearena
nahiz eta hauek ere merezi
pelma ta plasta izena
etzait inporta bertso eskean
hala etortzearena,
neskek sekula ez eskatzea
hori da nire problema

Festa erdian hainbat Romeok
badauka atrebentzia:
“–sutan jarrita probatu nahi det
nolakua dan eltzia,
neska horrentzat bertso bat nahi det
al baldin bada luzia,...”
Neretzat ez dut, eta hauekin
agortzen zait pazientzia.
Ni bertsolari frustratu bat naiz
ez maitasun agentzia!

Familia nahiz lagun artean
bapo afaldu ondoren
digestioa egiten ere
ezin dut hartu atseden
nere alban petardoren bat
beti nola egoten den
maiz bertsotara behartzen naute
ze gurutzea! Aitaren!
bertso pare bat kantatu eta
eskerrak aspertzen diren



Belodromoan amesten nuen,
ezin dut jarraitu lotan
hara joan gabe jada bainago
ia guztien ahotan
bukatu nahi dut baina aurretik
har ezazue gogotan;
“Garaipenaren Ebakuntzarik”
ez ba behar herri honetan
Fama hartu nahi duten horiek
has daitezela bertsoan.



John Baptista Lehiata 2002 urte

IPUJINAK
eta
ETCOAK



DURANGO
Udala • Ayuntamiento